



LANKIDETZARAKO ESPARRU-
HITZARMENA, EUSKO JAURLARITZA,
COITPV-EHTIEO ETA AITPV-
EHTIEREN ARTEKOA, EUSKAL
AUTONOMIA ERKIDEGOAN
TEKNOLOGIAK SARTZEKO ETA
INFORMAZIOAREN GIZARTEA
SUSTATZEKO HELBURUA DUENA

CONVENIO MARCO DE COLABORA-
CION ENTRE EL GOBIERNO VASCO,
COITPV-EHTIEO Y AITPV-EHTIE PARA
INTRODUCIR LAS NUEVAS TECNOLO-
GIAS E IMPULSAR LA SOCIEDAD DE LA
INFORMACION EN LA COMUNIDAD
AUTONOMA DEL PAIS VASCO

Vitoria-Gasteizen, 2010eko otsailaren 15ean

En Vitoria-Gasteiz, a 15 de febrero de 2010

BATZARTUTA

Alde batetik, Eusko Jaurlaritza (helbidea: Donostia-San Sebastián kaleko 1 zenbakia, 01010 posta kodea, Gasteiz, Araba) eta haren izenean, Justizia eta Herri Administrazio Saileko sailburua den heinean, Idoia Mendia Cueva andrea.

Bestetik, Euskal Herriko Telekomunikazio Ingeniarien Elkargo Ofiziala ("COITPV-EHTIEO" aurrerantzean), eta Euskal Herriko Telekomunikazio Ingeniarien Elkargo Ofiziala ("AITPV-EHTIE" aurrerantzean). Lehenengoak Q-2866009-J IFK zenbakia du eta G-95160743 bigarrenak, batak zein besteak helbide soziala hau dutela: Lersundi kaleko 8 zenbakia, 2. solairuan, 4. bulegoa, 48009 posta kodea, Bilbo (Bizkaia). Bien izenean eta ordezkartizan Juan Luis Ordiales Basterretxea jaunak dihardu, COITPV-EHTIEOren dekanu eta AITPV-EHTIEko buru gisa eta bakoitzaren estatutuetan eta erakunde bakoitzeko gobernu batzordeak hartutako erabakietan jasotzen diren eskumenekin bat etorritik.

Eusko Jaurlaritza, COITPV-EHTIEO eta AITPV-EHTIE, hirurak batera aipatzeko aurrerantzean "alderdiak" erabiliko da. Haietako bakoitza banaka aipatu behar denean, ordea, "alderdia" erabiliko da.

Bi alderdiek egintza hau egiteko beharrezko lege-ahalmena dutela onartzen diote elkarri, eta honako hau.

REUNIDOS

De una parte el Gobierno Vasco, con domicilio en Calle Donostia-San Sebastián, 1, C.P. 01010 de Vitoria-Gasteiz, (Álava), representado por Dña. Idoia Mendia Cueva, en su calidad de Consejera de Justicia y Administración Pública.

De otra parte, el Colegio Oficial de Ingenieros de Telecomunicación del País Vasco-Euskal Herriko Telekomunikazio Ingeniarien Elkargo Ofiziala (en adelante "COITPV-EHTIEO"), con CIF Q-2866009-J, y la Asociación de Ingenieros de Telecomunicación del País Vasco-Euskal Herriko Telekomunikazio Ingeniarien Elkargo Ofiziala (en adelante "AITPV-EHTIE"), con CIF G-95160743, ambas con dirección social en la calle Lersundi nº 9, planta 2ª - Dpto. 4, C.P. 48009 de Bilbao (Vizcaya), representadas por D. Juan Luis Ordiales Basterretxea, en su calidad de decano del COITPV-EHTIEO, y de presidente de la AITPV-EHTIE y de acuerdo con las atribuciones recogidas en los respectivos estatutos y en los acuerdos adoptados por la Junta de Gobierno de cada institución.

El Gobierno Vasco-Eusko Jaurlaritza, el COITPV-EHTIEO y la AITPV-EHTIE serán referidas en adelante conjuntamente como las "Partes" y cualquiera de ellas de forma individual como una "Parte".

Reconociéndose ambas partes la capacidad legal necesaria para formalizar el presente Acuerdo Marco.



ADIERAZI DUTE

1.- COITPV-EHTIEO oinarri pribatuko erakunde sektorial bat da eta bere helburuen artean dago lanbidearen teknologien aurrerapena sustatu eta erraztea, baita horiek hedatzea ere eta, or har, lanbidea eta beronen elkargokideak hobetzeagatik legez garatu daitekeen edozein jarduera burutzea. COITPV-EHTIEO gainera interesaturik dago, bere estatutuetan ezartzen denari jarraituz herri administrazioekin lankidetzan jarduteko eta, oro har, sozietatearen interesak gordetzen direla zainduko du, telekomunikazioen alorreko erakunde eta organismoen artean prestakuntzako jarduerak eta ezagupenak eta esperientziak transferitu eta trukatzeari loturikoak sustatu behar baitu.

2.- AITPV-EHTIEk bere nortasun juridikoa du eta jarduteko erabateko ahalmenaz jantzita dago. Bere helburuak betetzeko eta bere eginkizunak garatze aldera COITPV-EHTIEOrekin batera eta koordinatuz dihardu. Bere helburu nagusia da telekomunikazioko ingeniarien interesen aldeko ordezkaritza eta defentsa eta Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) Informazioaren Gizartea garatzea. Bere helburuak zuzenduta daude telekomunikazioko ingeniari lanbidea garatu, aurreratu eta sustatzera, ikasketak egitera, txostenak ematera eta telekomunikazioko ingeniaritzak eskatzen duen edozein jarduera bideratzera.

3.- Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuaren 16. artikulua arabera, Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Saileko Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzari honako egiteko hauek dagozkie:

- Irratia eta telebista hedatzeko zerbitzu

EXPONEN

1.- Que el COITPV-EHTIEO es una corporación sectorial de base privada, entre cuyas finalidades se encuentra impulsar y contribuir al progreso de las tecnologías propias de la profesión, la difusión de las mismas y, en general, la realización de todas las otras actividades que legalmente puedan desarrollarse por el perfeccionamiento de la profesión y el de sus colegiados. El COITPV-EHTIEO además, tiene interés, al fomentar las actividades de formación, transferencia e intercambio de conocimientos y de experiencias entre entidades y organismos relacionados con el sector de las telecomunicaciones y la sociedad de la información, en colaborar con las diferentes Administraciones Públicas conforme a lo que está recogido en sus Estatutos, velando, además, por el respeto a los intereses de la sociedad en general.

2.- Que la AITPV-EHTIE es una asociación, con personalidad jurídica propia y plena capacidad para obrar, que para el cumplimiento de sus finalidades y en el desarrollo de sus funciones, actúa coordinadamente con el COITPV-EHTIEO. Su cometido principal es la de representación y defensa de los intereses de los ingenieros de telecomunicación y el impulso del desarrollo de la Sociedad de la Información en la Comunidad Autónoma del País Vasco (CAPV). Sus metas van encaminadas a contribuir al desarrollo, al progreso y al fomento de la profesión de ingeniero de telecomunicación, la realización de estudios, la emisión de informes y a todas aquellas actividades propias de la ingeniería de telecomunicación.

3.- Que el artículo 16 del Decreto 472/2009, de 28 de agosto, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Justicia y Administración Pública atribuye a la Dirección de Informática y Telecomunicaciones, enmarcada dentro del Departamento de Justicia y Administración Pública del Gobierno Vasco-Eusko Jaurlaritza, entre otras, las siguientes funciones:

- Las relativas a la gestión del servicio portador



eroaleen kudeaketari dagozkionak, bai eta haren euskarri diren azpiegiturak administratzeari eta ustiatzeari dagozkien ahalmenak ere.

- Informazioaren gizartea sustatzea Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen eta herritarren artean, beren-beregi telekomunikazio azpiegiturekin lotutakoa, bai eta Jaurlaritzak onartzen dituen kasuan kasuko planetan ezartzen direnak ere.
- Irrati-espektroarekin eta haren gainean euskarria duten zerbitzuekin lotutakoak.

4.- Teknologia berriak sartu eta Informazioaren Gizartea EAEn batera bultzatze aldera eginahala aparta egiteko bi alderdiak ados daude eta horrela bere laguntza eman nahi dute euskal gizartearen oraingo eta geroko bizitza-kalitatea hobetu dadin.

5.- Aurrekari horiek oinarri hartuta, alderdiek adierazten dute telekomunikazioen eskumeneko arlotan lankidetzat bat ezarri nahi dutela Informazioaren Gizartearekin loturiko eremuetan interes komuneko gaiak bilatzeko eta nazio mailan nahiz nazioartekoan batera egiteko proiektuetan parte hartzeko helburuz. Hori dela eta, Lankidetzarako Esparru-hitzarmena sinatzen da eta beronek ditu honako:

KLAUSULAK

LEHENGOA.- HELBURUA.- Hitzarmen horren helburua da prestakuntza, ikerkuntza zientifiko eta tekniko eta alderdi guztientzat interesgarriko euskarri teknologikoan batera burutzeko jarduketa baterako oinarriak ezartzea. Oinarri horiek zehaztuko dira Esparru-hitzarmen honen garapenerako kasu bakoitzean sinatzen diren hurrengo hitzarmenak izenpetuz.

de los servicios de difusión de radio y televisión, así como aquellas facultades inherentes a la administración y explotación de las infraestructuras soporte del mismo.

- Promoción de la Sociedad de la Información entre las administraciones públicas y ciudadanos de la Comunidad Autónoma, específicamente las relacionadas con las infraestructuras de telecomunicaciones, así como las que se fijan en los planes correspondientes aprobados por el Gobierno.
- Las relacionadas con el espectro radioeléctrico y los servicios soportados sobre éste.

4.- Que ambas partes están de acuerdo en la necesidad de realizar un esfuerzo extraordinario para introducir las nuevas tecnologías e impulsar de forma conjunta la Sociedad de la Información en la CAPV, contribuyendo de esta forma a mejorar la calidad de vida actual y futura de la sociedad vasca.

5.- Que sobre la base de estos antecedentes, las partes manifiestan su voluntad de establecer una colaboración en las áreas de competencia de las telecomunicaciones, en los campos relacionados con la Sociedad de la Información y en la búsqueda de materias que sean de interés común, así como en la participación en proyectos conjuntos tanto de ámbito nacional como internacional, y consecuentemente se suscribe el presente convenio marco de colaboración de conformidad con las siguientes:

CLAUSULAS

PRIMERA.- OBJETO.- El presente convenio tiene por objeto establecer las bases para una actuación conjunta en actividades de formación, investigación científica y técnica y en el soporte tecnológico de interés común a las partes que se concretarán mediante la suscripción de los correspondientes convenios sucesivos que se firmen en el desarrollo del presente Convenio Marco.



Besteak beste, alderdien arteko lankidetzaz honako eremu hauetara zabalduko da:

- EAEn telekomunikazioko azpiegituren sustatu eta garatzera zuzendutako jarduerak sustatzea.
- Hitzarmenaren alderdien helburuekin zerikusia duten jarduerak garatu, batera antolatu eta sustatzea.
- Bestelako jarduerak garatzea baldin eta telekomunikazioen arloan eta Informazioaren Gizartean alderdiek dituzten helburuekin lotuta badaude.
- Bateran lankidetzan jardutea COITPV-EHTIEO y la AITPV-EHTIEk antolatzen duten TICs-Teleko Gaua izeneko ekitaldian. Ekitaldi hori Informazio eta Komunikazio Teknologien (IKT) alorreko profesionalentzat elkartzeko gunea eta gizarte orokorrarentzat teknologia berrien erakustokia da.

Halaber, eta telekomunikazioen eta komunikazio alorrean estrategiak, programak eta mezuak koordinatu eta lerrokatze aldera, alderdiek lan arlo erkidetan gaitasuna eta erantzukizuna dituzten beste eragile batzuekin koordinazioa sustatuko dute.

BIGARRENA.- HURRENGO HITZARMENAK.- Hitzarmen hau esparru dutela, alderdiek hala adosten badute erabakiko dute ekin beharreko jardura zehatza, hurrengo hitzarmenaren xedekoa izango dena, hain zuzen. Sinatzen den hurrengo hitzarmenak gutxienez honako alde hauek ezarriko ditu:

- a) Helburua zehaztea.
- b) Lana, egitekoak eta horiek gauzatzeko epeak zehaztea.
- c) Aurrekontua guztira zehaztea baita jardura burutzean zehazki erabili behar

La colaboración entre las partes se extenderá, entre otros, a los siguientes ámbitos:

- Promoción de actividades dirigidas a impulsar el desarrollo de infraestructuras de telecomunicaciones en la CAPV.
- Desarrollo, organización conjunta y promoción de actividades relacionadas con los objetivos de las partes del convenio.
- Desarrollo de otro tipo de actividades relacionadas con los objetivos de las partes en el sector de las telecomunicaciones y la Sociedad de la Información.
- Colaboración conjunta y apoyo en la ejecución de la Noche de las TICs-Teleko Gaua, evento que organiza el COITPV-EHTIEO y la AITPV-EHTIE, como punto de encuentro de los profesionales del sector de las Tecnologías de la Información y la Comunicación (TIC) en la CAPV y escaparate de nuevas tecnologías hacia la sociedad en general.

Así mismo, y con el objetivo de coordinar y alinear las estrategias, programas y mensajes en materia de telecomunicaciones y tecnologías de la información y la comunicación, las partes promoverán la coordinación con otros agentes con capacidad y responsabilidad en las áreas de trabajo comunes.

SEGUNDA.- CONVENIOS SUCESIVOS.- Teniendo como marco el presente Convenio, las partes decidirán de mutuo acuerdo la actuación concreta a acometer que será objeto del correspondiente Convenio sucesivo. El Convenio sucesivo que se suscriba establecerá como mínimo, los aspectos siguientes:

- a) Definición del objeto.
- b) Descripción del trabajo, tareas y sus plazos de ejecución.
- c) Concreción del presupuesto total así como de los medios materiales y humanos a emplear en



diren bitarteko materialak eta giza baliabideak zehaztea.

- d) Alderdien eskubideen eta betebeharren araubidea ezartzea.
- e) Berariazko hitzarmenaren koordinazioa eta garapenaz arduratzen diren alderdiak izendatzea.

HIRUGARRENA.- JARRAIPEN BATZORDEA.- Hitzarmen honen jarraipena egiteko batzorde bat eratuko da. Jarraipen Batzordeak COITPV-EHTIEOko ordezkari batek, AITPV-EHTIEko beste batek eta Eusko Jaurlaritzako beste bik osatuko dute.

Eusko Jaurlaritzaren izenean izango dira Informatika eta Telekomunikazioetako zuzendaria edo beronek eskuordetzan erabakitzen duena eta aipaturiko Zuzendaritzako ordezkari bat, Informatika eta Telekomunikazioetako zuzendariak izendatutakoa, hain zuzen.

Jarraipen Batzordeari honako hauek dagozkie:

- Telekomunikazioen alorrean interesgarriak izan daitezken gaiak zehaztea eta EAEn Informazioaren Gizartea garatzearen aldeko jarduerak sustatzea.
- Esparru-hitzarmen honi loturiko proiektu bereziak prestatzea eta haren planifikazioa erraztea eta, halaber, horien jarraipena eta ebaluaketa.
- Alderdi guztientzat interesgarriak diren gaietan lankidetzak proposatzea.
- Alderdien defendaturiko helburuekin zerikusia duten jardueren garapena koordinatzea, antolamendu bateratua eta sustapena.
- Esparru-hitzarmen hau eta beren-beregi sinatzen diren hitzarmenak interpretatu eta gauzatzeko garaian ageri litezken zalantzak argitzea.

Batzorde honek bultzatzen dituen ekimenez hurrengo hitzarmena sinatzea ekarriko dute eta

la realización de la actividad en concreto.

- d) Establecimiento del régimen de derechos y obligaciones de las partes.
- e) Nombramiento por las partes de las personas responsables de la coordinación y el desarrollo del convenio específico.

TERCERA.- COMISION DE SEGUIMIENTO.- Se constituirá una Comisión de Seguimiento del presente Convenio, que estará formada por un representante de COITPV-EHTIEO, un representante de AITPV-EHTIE y dos del Gobierno Vasco.

Por parte del Gobierno Vasco lo serán el Director de Informática y Telecomunicaciones, o persona en quien delegue y un representante de la mencionada Dirección, designado por el Director de Informática y Telecomunicaciones.

Corresponderá a la Comisión de Seguimiento:

- Definir puntos de interés en materia de telecomunicaciones y el impulso de actuaciones que favorezcan el desarrollo de la Sociedad de la Información en la CAPV.
- Facilitar la planificación y preparar los proyectos específicos asociados a este convenio marco, así como el seguimiento y evaluación del desarrollo de los mismos.
- Proponer colaboraciones en temas de interés común de las partes.
- Coordinar el desarrollo, organización conjunta y promoción de actividades relacionadas con los objetivos propugnados por las partes.
- Aclarar las dudas que puedan plantearse en la interpretación y la ejecución de este convenio marco y de los convenios específicos que se suscriban.

Las iniciativas que se impulsen desde esta Comisión se traducirán en la firma del



haren edukiak esparru-hitzarmen honen bigarren klausulan ezarritakoa bete beharko du.

Alderdiek adostuko dute Batzordeak jarduteko modua eta egutegia eta aurreikusten ez dagoenari dagokionez, kide anitzeko organoen funtzionamenduari buruz Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak ezartzen duenari jarraituko zaio.

LAUGARRENA.- INDARRALDIA.- Sinatzen denetik bertatik Lankidetzarako Esparru-hitzarmen honek ondorioak eta indarra izango ditu eta sinatzen denetik kontatzen hasita hiru urtez iraungo du eta baldin eta indarraldia azkendu baino hiru hilabete lehenago alderdietako batek idatziz hitzarmenaren amaiera iragartzen ez badu, automatikoki urteka luzatu ahalko da.

BOSGARRENA.- KLAUSULEN ALDAKETA.- Baldin eta elkarrekin adosten badute, edozein alderdik esparru-hitzarmen honen moldaketak edo hedapenak eta elkarren lankidetzarako beste ekimenak susta ditzake bai Toki Administrazioaren bai Estatuko Administrazioaren beste eremu batzuetara. Horrek dokumentu berri baten sinadura ekarriko du dagokion prozedura administratiboa bideratu ondoren.

SEIGARRENA.- AMAIERA.- Edozein alderdik, hitzarmenak dirauen artean bere kabuz eta bakarka iragarri ahalko du jarraitzerik nahi ez duela eta horrek bere amaiera ekarriko du.

Dena den, edozein alderdik hitzarmen honek ez jarraitzea iragartzeak ez du berehala ekarriko lehenago aipatutako bigarren klausulari jarraituz sinatzen diren hitzarmen bereziak ere amaitzea, izan ere, haien iraupena hitzarmen horietan bertan ezarritakoaren araberakoa izango da.

ZORTZIGARRENA.- BETEBEHARRAK EZ BETETZEA .- Baldin eta hiru alderdietako edozeinek esparru-hitzarmen honetan edo geroago sinatzen diren hurrengo hitzarmenetan

correspondiente Convenio Sucesivo, su contenido deberá seguir lo establecido en la cláusula segunda de este Convenio Marco.

El modo de funcionamiento de la Comisión y el calendario de actuación se establecerán de común acuerdo entre las partes y en lo no previsto se estará a lo dispuesto en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común para el funcionamiento de los órganos colegiados.

CUARTA.- VIGENCIA.- El presente Convenio Marco de colaboración comenzará a desplegar los efectos inherentes al mismo desde el momento de su firma y tendrá una duración de tres años a contar desde tal fecha pudiendo prorrogarse automáticamente por periodos anuales si no acontece denuncia expresa y por escrito de alguna de las partes con tres meses de antelación a la fecha de expiración de su vigencia.

QUINTA.- MODIFICACIONES DEL CLAUSULADO.- Cualquiera de las partes, de mutuo acuerdo, podrá impulsar posibles ampliaciones o modificaciones de este Convenio Marco y otras iniciativas de colaboración conjunta a otros ámbitos de la Administración local o estatal lo que dará lugar a la firma de un nuevo documento después de sustanciarse el correspondiente procedimiento administrativo.

SEXTA.- RESOLUCIÓN.- Cualquiera de las partes podrá denunciar unilateralmente el convenio durante su vigencia, lo que producirá su resolución.

No obstante, la denuncia del presente Convenio por cualquiera de las partes no supondrá la inmediata resolución de los convenios específicos formalizados al amparo de la cláusula segunda anterior, los cuales mantendrán su vigencia de acuerdo con lo previsto en ellos.

SEPTIMA.- INCUMPLIMIENTO DE OBLIGACIONES.- El incumplimiento por cualquiera de las tres partes de las obligaciones asumidas por cada una en el presente Convenio



bere gainean harturiko betebeharrak beteko ez balitu, bete egin duen alderdiak ahalmena izango du Hitzarmena bete edo amaitu dadila eskatzeko eta, edozeinetan, sorturiko kalteen ordaina jasotzeko.

ZORTZIGARRENA.- ARAUBIDE JURIDIKOA.- Hitzarmen honek izaera juridikoa du eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 30/2007 Legea aplikatuzetik salbuetsita dago 4.1.c artikuluari jarraituz.

Hitzarmenak dirauen artean sortu litezkeen auziak, betiere Jarraipen Batzordeak erabakitzea ezinezkoa bada, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen xedatutakoaren arabera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren menpe ipiniko dira.

Eta aurreko guztiarekin bat datozela adierazteko, bildu diren alderdiek goiburukoan aipatutako toki eta egunean izenpetzen dute hitzarmen hau ale bikoitzean.

Marco o bien en los Convenios sucesivos que se firmen posteriormente, facultará a la parte que haya cumplido entre optar por exigir el cumplimiento o la resolución del mismo, junto con el resarcimiento de los daños y perjuicios en cualquiera de los casos.

OCTAVA.- REGIMEN JURÍDICO.- El presente Convenio de colaboración tiene naturaleza administrativa y queda excluido de la aplicación de la Ley de Contratos del Sector Público en virtud del artículo 4.1.d.

Las cuestiones litigiosas que se pudieran suscitar durante la vigencia del mismo y que no pudieran ser resueltas por la Comisión de Seguimiento, serán sometidas a la jurisdicción Contencioso-Administrativa, de conformidad con su Ley reguladora 29/1998, de 13 de julio.

Y en prueba de conformidad de cuanto antecede, las partes reunidas firman por duplicado el presente convenio, en el lugar y fecha mencionados en el encabezamiento.

Izpta/Fdo.: Idoia Mendia Cueva
 Justizia eta Herri Administraziooko sailburua
 Consejera de Justicia y Administración Pública

Izpta/Fdo.: Juan Luis Ordiales Basterretxea
 Decano del COITPV-EHTIE y Presidente de la AITPV-EHTIE
 COITPV-EHTIE dekanoa eta AITPV-EHTIE burua